

FUNTSEZKO JARDUERAK

ParkSmart aplikazioa funtzionatzeko, lehenik eta behin aplikazioa diseinatu eta garatu behar da. Horrek esan nahi du mugikorreko aplikazioa sortzea. Era berean, adimen artifiziala integratu behar da, erabiltzailearen ohituretan oinarrituta aparkaleku libreak auresateko. Aplikazioa etengabe eguneratu behar da, akatsak konpontzeko eta erabiltzaileek gustura erabili dezaten.

Bigarrenik, problemak konpontzea oso garrantzitsua da. Aplikazioak trafiko egoerak, ekitaldi bereziak edo kaleak beteta dauden uneak aztertu behar ditu, eta mapa eguneratu behar du horren arabera. Halaber, erabiltzaileek jasotzen dituzten auresanak fidagarriak izan behar dira, eta hori bermatzeko algoritmoak etengabe hobetzen joan behar dira.

Azkenik, ParkSmart-en plataformako eta sareko jarduerak kudeatu behar dira. Hau da, aplikazioaren zerbitzariak eta datu-baseak ondo funtzionatu behar dute, datu berriak jasotzen jarraitu behar dugu erabiltzaileen ohiturei eta kaleen egoerari buruzkoak. Era berean, aplikazioa gazteentzat sustatu behar dugu, marketin eta publizitate bidez, eta ezin dugu ahaztu erabiltzaileekin harreman ona izatea; feedback jasotzea eta laguntza ematea garrantzitsua da aplikazioa hobetzeko eta erabiltzaileak pozik egoteko.

Laburbilduz, jarduera hauek guztiak beharrezkoak dira ParkSmart funtzionatzeko, erabiltzaileak auresanak jasotzeko, denbora aurrezteko eta aparkaleku bila bueltaka ibili beharrik gabe lasai ibiltzeko aukera izan dezan.